

Erregea biluzik dago

Meritu asko eta askotarikoak atxiki dakizkioke Joxe Azurmendiri, esan gabe doa. Horien artean, aipagarria da euskal nazionalismoa duintasun intelektualaz janzteko ahalegina. Paradoxikoa bada ere, abertzale kopuru esanguratsua daukan euskal gizartean, urriak dira nazionalismoaren inguruko gogoetak, akademikoak eta batez ere politikoak. Historiaren arloan bereziki garatu dira azterketak eta, sarritan, euskal nazionalismoaren zilegitasuna zalantzan jartzeko ageriko helburuarekin. Hala, XX. mendeko azken hamarkadetan nolabaiteko protagonismoa hartu zuten euskal nazionalismoaren ustezko esentzialismoa kritikatzeko helburu zuten ikerketek. Eta bizi garen garaiotan ere, 'nazionalismoaren legenda beltza' delakoak eremua irabazi baino ez du egin muturreko kontserbadurismoaren abaroan. Azurmendiri berari entzun nion behin zaila dela gai beroak modu hotzean aurkeztea. Eta nazionalismoa gai beroa dugu, duda barik. Gizakion eguneroko bizitzan ondorioak izateaz gain, nazioko kide sentitzen den jendea behar duelako nazionalismoak. Sentimendu eta atxikimendu emozional multzo batek lotzen ditu herritarrak. Era hartara, nazionalismo guztiek abiapuntu bera dutelako ideia finkatzen tematu zen Azurmendi. Sakonki eta ausarki tematu ere.

Lehenik eta behin, Erromantizismoaren eta Ilustrazioaren arteko erabateko banaketari uko eginez, razionaltasunaren eta irrazionaltasunaren edo sentimenduaren arteko talka erlatibizatu zuen. Horrela, lan militante modura hartu zuen espainiar nazionalismoaren ezaugarriak agerian uztea, hura egon bazegoelako, baina inor gutxik aitortzen zuen gainerako nazionalismoek bezalatsu jokatzeko zuela. Hots, erregea biluzik zegoela ikusi eta esan zuen Azurmendik. Ildo horretan, historiako hainbat egile aztertu zuen, halako moldez non haiek esandakoa Michael Billigen 'nazionalismo hutsal' kontzeptu garrantzitsuen barruan sartu beharko bailitzateke.

Izan ere, Azurmendiren ustez, egunerokoan nabarmentzen ez den eta oharkabean pasatzen den espainiar nazionalismoak bere baitara begiratu beharko luke, eta autokritika egin, intelektual askok iruzur kolektiboari ekiten baitzion euskal nazionalismoaren azterketan. «Abertzaletasunaren erredukzioa Arana Goiriren arrazismora Ravelen boleroa da kazetaritza espainolean», idatzi zuen, adierazi nahian zein neurritan zen etsigarria euskal nazionalismoari egiten zitzaion kritika pobrea eta errepikakorra, argudio sendorik gabea. «Nazionalista askoren ez-nazionalismoa» jomugan ipini zuen, argi utzi nahi baitzuen nazionalista izatea ez dagoela razionaltasunari edota unibertsalismoari kontrajarrita. Inozoa den bezala euskal nazionalistek pluraltasuna ukatzen dutela esatea. «Nazioa beti bata eta plurala da». Nazio guztiak, alegia.

Bigarrenik, euskal nazioaren funtsa azaleratzen ahalegindu zen. Nolakoa da, ordea, Azurmendiren beraren nazioa? Euskarak zeharkatzen du haren pentsamendu guztia. Haritz Azurmendik baieztatzen duenez, euskaldunentzat idazten du, euskararen komunitatearentzat. Nazioa eta hizkuntza banaezinak dira. Nazioa komunitate naturala dela dio, ez da modernitatearen emaitza hutsa. Estaturik ez dugunez, euskaldunok ez gara nazio politikoa, baina nazio naturala izateari eutsi diogu. Badirudi, beraz, ez datorrela bat Benedict Andersonen definizio ospetsuarekin: nazioa da bere burua politikoki subirano irudikatzen duen komunitatea. Nazioa ez da komunitate politikoa, Azurmendiren ustean. Nazioak historikoak eta kulturalak dira eta, horrez gain, bizitza komunitarioa dute.

Abertzaleon autoestimua eragiten dute Azurmendiren gogoeta askok. Baina baita zalantza saihetsezinak ere, zeren eta bitxia baita ikustea nola hain politizatua dagoen euskal nazionalismoak Azurmendi erabiltzen duen nazio diskurtsoa eraikitzeko. Alta, politikaren arloan jardun nahi duen nazionalismoak posible ote du Azurmendiren ildoari eustea?